

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala**

**2021eko martxoaren 26ko 2021/0539 Ebazpenaren laburpena, 2021eko Jule-  
ne Azpeitia literatur saria deitzen duena. BDNS (identif.): 555602.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvencio-nes.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/555602>).

**Lehenengoa. — Onuradunak**

Lehiaketak hiru sail izango ditu: ipuinak, olerkiak eta bertsoak. Eta bost kategoria ditu sail bakoitzean: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak; Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak; Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak; Batxilergo eta Lanbide Heziketako maila ertaineko ikasleak; 18 urtetik gorakoak.

Lehen 4 kategorietan Durangoko eskoletan ikasten ari diren umeek eta gazteek har dezakete parte eta, halaber, beste herrietako eskoletan ikasten ari diren ume eta gazte durangarrak ere aurkeztu daitezke. 5 kategorian, aldiz, edonork har dezake parte.

**Ipuinak:**

- LHko 5. eta 6. maila. Luzera: 1-3 orrialde artekoa. Saria: liburu sorta.
- DBHko 1. eta 2. maila. Luzera: 2-4 orrialde artekoa. Saria: liburu sorta.
- DBHko 3. eta 4. maila. Luzera: 3-6 orrialde artekoa. Saria: 150 euro.
- Batxilergo eta Lanbide Heziketako maila ertaina. Luzera: 4-7 orrialde artekoa. Saria: 200 euro.
- 18 urtetik gora. Luzera: 4-8 orrialde artekoa. Saria: 600 euro (PFEZ barik).

**Olerkiak:**

- LHko 5. eta 6. maila. Luzera: 10-20 lerro. Saria: liburu sorta.
- DBHko 1. eta 2. maila. Luzera: 20-30 lerro. Saria: liburu sorta.
- DBHko 3. eta 4. maila. Luzera: 30-40 lerro. Saria: 150 euro.
- Batxilergo eta Lanbide Heziketako maila ertaina. Luzera: 40-50 lerro. Saria: 200 euro.
- 18 urtetik gora. Luzera: 50-70 lerro. Saria: 300 euro (PFEZ barik).

Olerkietan, olerki bat edo olerki sorta aurkeztu ahal izango da, adin-tarte bakoitzean bere neurrikoa.

**Bertsoak:**

- LHko 5. eta 6. Maila. Luzera: 3 bertso. Saria: liburu sorta.
- DBHko 1. eta 2. Maila. Luzera: 4 bertso. Saria: liburu sorta.
- DBHko 3. eta 4. maila. Luzera: 5 bertso. Saria: 150 euro.
- Batxilergo eta Lanbide Heziketako maila ertaina. Luzera: 6 bertso. Saria: 200 euro.
- 18 urtetik gora. Luzera: 8 bertso. Saria: 300 € (IRPF barik).

Indarrean dagoen legediak ezartzen duena aintzat hartuta, 300 eurotik gorako sariak PFEZren %19ko atxikipena izango dute.

**Akzesitak:**

Ezarritako sariez gain, epaimahaiak akzesitak ematea proposatu dezake. Horrela bali-  
litz, saria liburu-sorta bat izango litzateke.

**Bigarrenena. — Diru-laguntza ematearen xedea**

Lehiaketaren xedea da euskaraz idazteko zaletasuna sustatzea eta indartzea eta, aldi berean, lan sarituak argitara ematea. Alde batetik, Durangoko eskoletan ikasten ari diren ume eta gazteei (11 urtetik 18ra bitartekoak) zuzenduta dago, eta baita ere beste herrietako eskoletan ikasten ari diren ume eta gazte durangarrei. 18 urtetik gorako sarietara, ostera, edonor aurkez daiteke.

**Hirugarrena. — Oinarri araupetzaileak**

Deialdi hau Durangoko Udalak 2020ko abenduaren 22ko osoko bilkuran onartutako 2021eko diru-laguntzen plan estrategikoan dago jasota. Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Durangoko Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: [www.durango.eus/dirulaguntzak](http://www.durango.eus/dirulaguntzak).

**Laugarrena. — Zenbatekoa**

- Kopuru osoa: 3.500 euro.
- Aurrekontu partida: 61.3350.48101.

**Bosgarrena. — Eskariak aurkezteko epea**

Eskariak aurkezteko azken eguna: 2021eko apirilaren 27a.

Durangon, 2021eko martxoaren 26an.—Herrigintza batzordeko Alkateordea, Julián Ríos Santiago